discrecion toca solamente ahora proponer los medios mas convenientes para lograr lo que todos deseamos.

Vizcaya no será á mediados del siglo XIX menos que lo que fué en siglos anteriores. El desinterés y la abnegacion de todos sus hijos y el valor y heroismo de aquellos que tengan la honra de empuñar las armas, merecerán en su dia, á no dudarlo, las bendiciones y alabanzas que desde ahora les prepara la *patria agradecida*.

BERBA-ALDI

VIZCAICO CORREGIDORE JAUNAC ESANA BATZAR EDO JUNTA GENERAL EXTRAORDINARIJUEN EDEGUIERAN CEMENDIJAREN AMARRIAN 1859 GARREN URTIAN.

JAUNAC :

Guztiz egoqui eta errijeen oneraco da gaur zubéc batzar onetara ecarri zaituzan motivua, orraco arbola, ceuben foru eta Vizcaico glorijen irudi vicijaren azpira.

Ezaguturic, apoderau edo escubidedun Jaunac, ceubec errijén oneraco daucazuben gurari verárizcua, errez da aituten ce gauza andijac eguingo dituzubén ocasinoe onetan, bai Vizcaijaren mesedian eta bai gueure Erreguiña eta Señoriaren servicijuan.

Badaquizubé cein dan Naciñoe edo Erreñua, beti izan daná Español izenaren arerijo aguirija, eta cein gure asabác aimbeste guerra, guztijac glorijaz betericuac Españarentzat, bota izan ebeena ichasuaren beste aldera; bada au berau, azartu izan da orain gure honriari iraun edo injurijac eguitera, eracusten dabela modu onetan daucala viciric oraindiño bere gorrotua, beti euqui daben leguez, berá anchiña garaitu edo vencidu ebeenen contra.

Gure Erreiñuari eguin jacozan iraun edo injurijac, izan biardabé laster eta osoro erreparau edo zucendubac. Gure Princesa edo Erreguiñac, ceiñec daucan bere jatorrija araco Erregue entzute andicu etatic, aimbeste guerragaz arraza edo casta esan danaren contra, eta Españolen izena aiñ asco goratu ebeenetatic Clavijo, Navas eta beste milla lecuetan, ecin sufridu izan dau ilunduta guelditzia orduban irabacitaco victorijac. Erreguiñac berac, bere icenagaz jaretsi izan dau leléngo Isabelen anditasuna, ceiñec librau eban España Moruen mempetic,

(c) 2008 Real Academia de Jurisprudencia y Legislación